

**OROIMENAZ MINTZATZEN DIREN ANDOAINGO
KALE BAZTER ETA NATUR ZOKOAK**

Xabier Lasa Bergara

Ikerketa honek Andoaingo udalerrian topa daitezkeen esanahi bereziko objektuen nolabaiteko katalogoa izan nahi du; hau da, edozein kale, plaza, etxe horma, mendi gain, naturgune, edo gainerako bazterretan aurki daitezkeen plaka, monolito, gurutze, buzoi, artelan, panel e.a.-en zerrenda.

Gizakiak jarri ditu dauden tokian; irizpide artistikoaz eginak izan ala ez, helburu anitz ditu horietako bakoitzak: bizia ematea espazio publikoari, informazioa helaraztea ikusleari, pertsona publiko zein anonimoren bat edo giza kolektiboren bat omentzea... Diren helburuak direla, Andoaingo gizartearen memoria historiko indibidual edo kolektiboekin batetik, eta, udalerrriaren balio kultural edo naturalekin bestetik, lotzen dira.

Zerrendatzen den objektu bakoitza zenbait xehetasunez hornituta dator: irudia, kokapena, zein testuingurutan jarri zen, sinbologiaren interpretazioa, egilea, omendua nor den, omenduaren biografia...

Andoain, artelana, eskultura, plaka, monolitoen katalogoa, omenaldia, memoria historikoa.

El presente estudio pretende ser una especie de catálogo de objetos físicos singulares que se localizan, en la actualidad, en el espacio público de Andoain. Es decir, placas, monolitos, cruces, esculturas, buzones, paneles... que se pueden contemplar en cualquier calle, plaza, fachada de casa, cimas de montaña, cualquier rincón de la naturaleza... Están ahí colocados por la mano del ser humano, ya sea con criterio artístico o sin él, pero con la finalidad de dar vida al espacio público, de transmitir información o servir de homenaje, en relación, por un parte, a la memoria histórica individual o colectiva de la sociedad de Andoain, y por otra, a los valores naturales, culturales... de dicho municipio.

Cada objeto físico viene acompañado de una serie de datos, según sea su característica: imagen, localización, interpretación simbólica, contexto en que se produce su colocación, autor, razón del homenaje, biografía del homenajeado...

Andoain, escultura, obra de arte, placa, catálogo de monolitos, homenaje, memoria histórica.

This research it's meant to be a catalogue of physically singular objects witch nowadays are located in the public spaces of Andoain. In other words, any signs, monoliths, junctions, sculptures, post-boxes or panels, that can be found in streets, squares, house walls, hilltops or anywhere in the countryside... They have been placed by the human being with or without artistic means, but with the aim of bringing to live the public space, of transmitting information, or as a tribute related with the individual and collective society of Andoain, and on the other hand to the cultural natural values of Andoain.

Each physical object is accompanied by a series of references according to its characteristics such as; image, localization, symbolic interpretation, context of the time of placing, author, reason of tribute, biography of the tribute...

Andoain, sculpture, work of art, plaque, catalogue of monoliths, homage, memory historic.

ESKEMA

AITZINSOLASA.

1. BURUNTZA AUZO INGURUAK¹.

- 1.1. Miguel Inziarteri oroigarria.
- 1.2. Victor Murgiari oroigarria.
- 1.3. Batista Zalakaini oroigarria.
- 1.4. Ama Kandidaren eskultura.
- 1.5. Martin Ugalde parkeko eskultura.
- 1.6. Buruntza San Martin parke arkeologikoa.
- 1.7. San Rokeko gurutze-bideko 14 gurutze.
- 1.8. Pedro Maria de Pazi oroigarria.
- 1.9. Buruntza gailurreko buzoi.
- 1.10. Buruntza gailurreko gurutzea.
- 1.11. Iñaki Agirretxeri oroigarria.
- 1.12. Andoain-Urrietako mugarria.
- 1.13. Antonio Davóren oroimenezko oroitarria.

2. LEIZOTZ AUZO INGURUAK.

- 2.1. Jose Ramon Ansari oroigarria.
- 2.2. Igor Torresi oroigarria.
- 2.3. Altzairuzko iturria.
- 2.4. "Eguzki-trena" eskultura markesina.
- 2.5. Aita Larramendiren oroimenezko eskultura.
- 2.6. Aita Larramendiren oroimenezko plaka.
- 2.7. Jose Ramon Goikoetxearen oroimenezko plaka.
- 2.8. Josi Goikoetxeri oroigarria.
- 2.9. Eteneta II-ko monumentu megalitikoak.
- 2.10. Usabelartzako bide seinaleak.
- 2.11. Usabelartzako monumentu megalitikoak.
- 2.12. Aizkorri mendiko bi buzoi.
- 2.13. Jose Inazio Etxeberriari oroigarria.

¹ Zazpi epigrafe hauen informazioa CD formatuan jasota daude.

2.14. Muntto mendi muinoko buzoia.

2.15. Basabideetako oroigarriak.

3. LEITZARAN BAILARA ETA GOIBURU AUZO INGURUAK.

3.1. Leitzaran naturbideko panelak.

3.2. Rosendo Rekondoren oroimenezko hilarria.

3.3. "Albis"i oroigarria eta plaka.

3.4. Jon Lizarralderi oroigarria.

3.5. Migel Angel Lopez-i oroigarria.

3.6. Nerea Karrerari oroigarria.

3.7. Jabier Zubillagari oroigarria.

3.8. Otietako auzolanaren oroigarria.

3.9. Otieta parkeko eskultura.

3.10. Jesus Mironi oroigarria.

3.11. Andueza aipatzen duen oroigarria.

3.12. Ramon Jauregiri oroigarria.

3.13. Goiburuko iturri-eskultura.

3.14. Hildako baserritarrari oroigarria.

4. KARRIKA ETA SORABILLA AUZO INGURUAK.

4.1. N-1 Irun-Madril errepideko mugarriak.

4.2. Frantzisko Etxebesteren oroimenezko hilarria.

4.3. Sorabillako karobien ibilbideko panelak.

4.4. Jose Urkolaren oroimenezko plaka.

4.5. Joxe Mari Iturzaetari bi oroigarriak.

4.6. Sorabillako iturriko eskultura.

4.7. Elordiko (Sorabilla-Aduna) mugarria.

4.8. Belkoingo maldetan bide seinaleak.

4.9. Bernardo Caballero-ri oroigarria.

4.10. Belkoingo gurutzea.

4.11. Belkoingo buzoia.

4.12. Belkoingo monumentu megalitikoa.

4.13. Bonifazio Gonzalori oroigarria.

4.14. Felix Arizetaren oroimenezko oroigarria.

4.15. Antonio Montesén oroimenezko oroigarria.

4.16. "Geroak esan beza" eskultura.

4.17. "Oria ibaia" eskultura.

4.18. Andoingo udalerraren "A" logotipoa.

5. HERRIGUNeko BEHEKO KALEAK.

5.1. Kale hormetako margolanak.

5.2. "Zehar" eskultura.

5.3. "Goiztirian, arimaren garrasia" eskultura.

5.4. Algodonerako emakumeen oroimenezko bi plaka.

5.5. "Beste" eskultura.

5.6. Gudariei oroigarria.

5.7. Olagain auzoko artelana.

6. HERRIGUNeko GOIKO KALEAK.

6.1. Plazaola bideko zeramika murala.

6.2. Eskailera luzeetako zeramika murala.

6.3. Plazaola bideko ikurrak.

6.4. Zenbait auzuneetako plakak.

6.5. Jose Luis Lopez de Lacalleren oroimenezko eskultura.

6.6. Diktadura frankistaren ikurrak.

6.7. Rikardo Arregiren oroimenezko bi panel.

6.8. Aita Larramendiren oroimenezko giza-irudia.

6.9. Aita Larramendiren oroimenezko hilarria.

6.10. Agustin Leitzaren oroimenezko hilarria.

6.11. Manuel Lekuonaren oroimenezko artelana.

6.12. La Salle-Berrozpeko lehendabiziko eskultura.

6.13. La Salle-Berrozpeko bigarren eskultura.

6.14. "Gudaria" eskultura.

6.15. "Josebaren etxea" eskultura.

6.16. "Arrantzalea" giza-irudia.

6.17. Andoingo seme-alaba ospetsuen erretratuak.

7. AZKEN ERANSKINA.

8. INFORMAZIO ITURRIAK.

8.1. Artxibategiak.

8.2. Bibliografia.

8.3. Hemeroteca.

8.4. Lekukotzak.

Mila esker, eskatu ahala, honetaz eta hartaz lekukotza eman edo agiriak eskura jarri dizkidaten makina bat pertsonari; alegia, atalez atal aipatzen diren guzti horiei eta artxibategi ezberdinetako arduradunei (Iñaki Zabaleta, Ramon Iriarte, Karmele Otaegi eta Marta Trutxuelori bereziki). Eta nolaz ez, beste behin, pazientzia kiloka erakutsi didaten Manex eta Arantzari.

AITZINSOLASA.

Eskulturak, oroitarriak, monolitoak, gurutzeak, plakak, panelak, monumentu megalitikoak, errotuluak... Andoaingo herri gunean nahiz ingurunean topa ditzaitezun gauzaki fisikoen katalogoa duzu honako hauxe, irakurle.

Andoain eta Andoaingo biztanleei buruzko oroimen-sentipena eta informazioa transmititzeko jarriak dira, dauden tokian.

Andoaingo historian barrena galtzen joan den pertsona publiko nahiz anonimoren bat, giza-kolektiboren bat, gertakizun historikoren bat, kultur nahiz natur ondarearen bat... gogoan har ditzagun -eta ez denboraren gurpilak irentsi ditzan-, jarri dira udalerriko kale, plaza, horma, mendi gain, paraje, zoko edo bazter seinalatuetan.

Paisaje urbano edo naturalaren baitan txertatzen dira noizbait, eta oharkabean igarotzen gara haien aurretik sarri, hiriko "altzari" hutsalak bailira; egongo ez balira bezala, alegia. Begi bistan dauzkagu, bai, baina ez diegu erreparatzen, ez diegu

beharko luketen balioa ematen, eta okerragoa dena, ezezagunak edo ikusezinak egiten zaizkigu ikustearen ikustez.

Maiz samar, ez dakigu nor jarri zituen, zertarako jarri ziren, nori edo zeri egiten dioten gorazarre, zer adierazi nahi duten, zenbateraino balio ote duten erritualetan bat egiteko egun seinalaturen batean...

Esanahiz betetzen dute espazio publikoa gehienek, eta hargatik, arretaz begiratzekoak dira, beste begiradaz begiratzekoak.

Irizpide artistikoak bultzatutakoak.

Artistek sortutako artelanak dira azpimarratzekoak aztergai diren elementu guztien gaintetik, beharbada; irudimena askatzera gonbidatzen gaituztenak baitira bereziki. Hain zuzen, 16 artelan dira katalogatu direnak guztira, nolabaiteko Andoaingo atlas eskultorikoa osatzen dutenak.

Artelan horiek dira begiratzekoak... eta zaintzekoak. Bereziki zaintzekoak, erakunde publikoek herritarren gozagarri ipinitako sormen lanak direnez gero. Xabier Laka eskulturagileak ikerlan honetako ondorengo ataletan atsekabez adierazita daukan moduan, kaleetako espaloiak edo farolak zaintzen jarri ohi duen ahalegina behar luke jarri administrazioak eskulturak jendeari pedagogikoki esplikatze aldera (jartzen diren unean), eta errehabilitatze aldera (denboraren joanak urratzen dituenen). Ez da hala gertatzen maiz, ordea, eta azkenean, gizakiak kontenplatzeko, gozatzeko, interpretatzeko paratu ziren sormen lanak, enbarazu egiten duten "harri-pusketa" hutsak izatera kondentzen dira ia ia. Urrutira gabe, ikusi besterik ez dago utzikeriak Goiburuko iturri-eskultura zertara bultzatu duen.

Sentimenduak adierazi premiak bultzatutakoak.

Guztira zerrendatu diren elementuen artetik, ezagupen edo informazio zehatz eta objektibo bat komunikatzeko sortu dira batzuk. Beste batzuk, baina, gizakiak berezkoa duen oroitzapenaren ariketa existentzialari erantzuten diote; hots, sentimendu eta emozio anitzak adierazteko premi barne-barnekoari. Sentimendua norekiko edo zerekiko? Zendu berri den familiar horrekiko, pertsonai publiko ospetsu horrekiko, eraildako herritar horrekiko, herriaren historiako pasarte tragiko nahiz loriatsu horrekiko, natur nahiz kultur ondare horrekiko, e.a.

Zendutako inoren aldeko plaka, eskultura edo antzeko objektu fisikoa lekuren batean paratzea giza sentimenduak esplizitoki adierazteko modu bat da, zeremonia mota zehatz bat da. Andoaingo panorama ikusita, gehien-gehienak ekimen pribatu nahiz publikoak bultzatutakoak izan direla ohartzen gara. Familiartekoak

edo adiskideak lehenengo kasuan, erakunde publikoak bigarrengoan. Ez da ikerlan honen zeregina epaitzea zilegi den ala ez espazio publiko batean adieraztea oroituarekiko maitasuna; eta gutxiago, "merezimenduen" lehiaketa absurdo horretan sartzea. Guztion ordezkari diren erakundeei, ordea, eska geniezaioke erakutsia duena baino objetibotasun handiagoa, gaur baita eguna begi bistan agertzen zaigula agrabio konparatibo mingarririk, biolentzia politikoak Andoainen eraildako pertsona batzuk, ez denak, oroitzeko espazio publikoa betetzea erabaki zuenez geroztik.

Katalogo aldakorra.

Bukatu gabeko eta itxi ezineko katalogoa duzu eskuartean duzun lan hauxe, irakurle; berritu beharrekoa aldi aldi. Izan ere, horietako batzuk Burdin Aroan (k.a. 1.000-700 urte) paratu zituzten gure arbasoek; aldiz, orain aurretik beste zenbait. Era horretan, zaharretik berrienera doan epealdi historiko luze horretan zehar batzuk desagertzen joan diren bitartean, beste batzuk herenegun bertan izan ziren paratuak. Gizakiaren borondatearen menpe egongo da bihartik aurrera zerk iraun behar duen zerk ez... Horrexegatik, bada, ondorengo lerroetan agertzen den objektu sorta 2008-2010eko epealdian Andoaingo herriari ateratako "argazki" kolektiboaren emaitza da.

Bestalde, esan behar da auzoka bildu direla elementu guzti horiek. Ibilbide bati jarraituz, bata bestearen segidan jarri dira apropos, elementuz elementu oinezko txango oso bat egiteko moduan.

Irudia eta fitxa teknikoa jarri zaizkio elementu bakoitzari. Fitxa horretan, hainbat argigarri adierazten dira: kokapena, ezaugarriak, oroituari buruzko azalpenak, egilea, sinbologia, interpretaziorako bideak (eskulturen kasuan batik bat)...

Bukatzeko, bada, irakurle, hor doakizu gonbidapena ondorengo atalak miatu ez ezik behar diren datuak erantsi, zuzendu... ditzazun.

8. INFORMAZIO ITURRIAK.

8.1. Artxibategiak.

8.1.1. Agiriak.

- Andoaingo Udal Artxibategia (AUA).
- Andoaingo Erregistro Zibila.
- Andoaingo Parrokiako Artxibategia.
- Koldo Mitxelena Liburutegiko Hemeroteca.

8.1.2. Argazkiak.

- Andoaingo Udal Artxibategia (AUA).
- *Aiurri* aldizkaria.

8.2. Bibliografía.

- AIZPURUA, Justo; KAMIO, Garazi: *Aita Larramendi Ikastola. 1963-... 40 urte, mila zorion*, Ikastolak argitaratutako liburua, 2004ko maiatzean.
- ARRIETA, Txingo; OBESO, Gorka: *Gipuzkoako Eskalada Gida*, Donostia, 2002.
- AYERBE, Rosa; DÍEZ DE SALAZAR, Luis Miguel: "Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615)", *Leyçaur*, 0, 1996.
- BAZTARRIKA, Patxi: *Rikardo Arregi (1942-1969)*, Bidegileak bildumako alea, 1998.
- DONOSTIA TURISMOA, S.A.: *Bestelako begirada. Eskulturak Donostian*, Donostia, 2008, Esku liburua.
- ESNAL, Miren; AMUTXASTEGLI, Amaia: "El Plazaola. Tren Txiki", *Andoaingo Paperak*, 1, 1986.
- GOIKOETXEA, Joxe Ramon *Ardotxi: Mentxakaren Aitorpena*, Elkar argitaletxea, 2006.
- GONZÁLEZ, Fátima; MARTÍNEZ, Mónica: *Algodonerako emakumeak 1857-1965*. Omenaldi-ekitaldiekin batera argitaratu zen liburuskua.
- IRAZU, Iosune: "Ingurua ezagutzen", *Andoaingo Paperak*, 6, 1991.
- LARRAMENDI BAZKUNA: *Andoain. Bertako kale eta plazetan barrena*, Bildumako hiru argitalpenak, Andoain, 2010.
- LARREA, Juan José; ALTUNA, Pello: "Andoain historiaurrean edo Andoaingo historiaurrea", *Andoaingo Paperak*, 2, 1987.
- LASA, Xabier: *Ahozko testigantza: oroimenean lokartutako ahotsa*, Oroituz taldea, Andoain, 2007.
- ÍDEM: *Aita Manuel Larramendi. Bizitza eta obra. 1690-1990*, Larramendi Bazkuna, 1991.

- ÍDEM: *La Salle-Berrozpe (1945-1995). 50 urte bizirik... herriaren zerbitzuan*, La Salle-Berrozpe ikastetxearen argitalpena, Andoain, 1996.
- OTAEGI, Karmele: "La transición desde la perspectiva de la izquierda", *Leyçaur*, 5, 1998, 367-423 or.
- TELLECHEA IDIGORAS, José Ignacio; ASTIZARAIN, María Isabel: *Agustin de Leyza... el bienhechor indiano*, Andoaingo Udala, 1994.
- URRUTIA OCHOA, Peio: "XXV años de paz y cinco mil días de paciencia", *Leyçaur*, 10, 2008. 207-371 or.
- USABIAGA, Amaia: *Andoaingo Toponimia*, Onomasticon Vasconiae bilduma, Euskaltzaindia, 1993.
- ZABALZA, Ricardo: *Foz de Lumbier. Antecedentes y crónica de unas ejecuciones*, Txalaparta, 1990.
- ZINKUNEGI, Agustin: *Bizi naiak lege zorrotzak*, Auspoa, 1995.

8.3. Hemeroteka.

- Prentsa idatzia: La Constancia, El Pueblo Vasco, El Día, La Voz de Guipúzcoa, El Diario Vasco, La Voz de España, Unidad, El País, El Mundo, Noticias de Gipuzkoa, Egin, Gara, Egunkaria eta Berria.
- Herri aldizkaria: *Aiurri*.

8.4. Lekukotzak.

Josu Agirretxe, Jone Aldaz, Migel Amas, Arantxa Ansa, Jose Atxaga, Ainhoa Aiertza, Juantxo Arregi, Eduardo Arreseygor, Batista Arruti, Jose Mari Aseginolaza, Ramon Azpeitia, Aaron Bachiller, Pello Barandiaran, Juan Batista Barandiaran, Miguel Angel Caballero, Miguel Angel Davó, Xabier Egaña, Javier Gallo, Arantxa Garmendia, Arantxa Goikoetxea, Manuel Gonzalez, Joakina Irizar, Joxe Ramon Iturzaeta, Xabier Laka, Kontxi Langara, Inmakulada Lasarte, Joxe Antonio Iturrioz, Asier Miron, Migel Mari Oiartzabal, Margarita Oiartzun, Iñaki Olazabal, Jose Antonio Ormazabal, Karmele Otaegi, Maria Joxepa Sarasola, Lander Subiza, Tomas Ugarte-mendia, Jon Unanue, Bentura Uranga, Manolo Urdanpilleta, Joseba Usandizaga, Txomin Usandizaga, Iñaki Zabaleta, Kristina Zinkunegi eta Juan Karlos Zubieta.